

ADINEKOENDAKO UDAL ZERBITZUEN ETA JANTOKI SOZIALAREN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

3. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluako 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Tarifen aplikazioa

2. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen Eranskinen aurreikusitakoaren arabera ezarriko dira, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

3. artikulua.- Tarifa subsidiarioa etxebizitza komunitarioak erabiltzen dituztenei aplikatuko zaie, tarifen 2. epigrafean azaltzen denarekin bat, baldin eta hileko diru-sarrera gordinen eta potentzialen baturak, hainbanaturik, tarifa nagusiaren % 120 gainditzen ez badu.

Tarifa subsidiarioaren oinarria diren diru-sarrera gordinak honako hauek batuta lortuko dira: benetan jasotako diru-sarrerak, eta diru-sarrera potentzialak –kasuan kasuan dela ondasunek dela errenta edo likidazioa sortzen ahal duten eskubideen titulartasunak eragiten ahal dituzten etekinak kalkulaturak–.

Zenbaketa horretan, aurreko urteko diru-sarrera guztiak kontatuko dira, hala nola pentsioak, kapital higigarri eta higiezinaren errentak eta abar. Pentsioak 14 hilabetetan hainbanatuko dira, eta errenten diru-sarrerak, 12 hilabetetan.

Arau honetan arautzen diren udal-zerbitzuen bi erabiltzaile senar-emazteak badira, tarifa zein den jakiteko, bi ezkontideen *per capita* diru-sarrerak batu ondoko kopurua hartuko da oinarritzat.

Tarifa-eranskina urteko diru-sarrerei aplikatzeko, hileko 60 euroko kopuru finkoa deskontatuko zaie, kopuru hori erreserbatzat jotzen baita etxebizitza komunitarioetako eta apartamentu babestuetako erabiltzaileek nahi duten erara, norik berera, erabiltzeko.

4. artikulua.- Tarifa subsidiarioa aplikagarri bada, 2. epigrafean jasotako moduan, tarifa horren eta tarifa orokorraren arteko aldea Udalaren gizarte-laguntzako aurrerakintzat hartuko da, eta onuradunak edo kausadunak diru-kopuru hori itzuli beharko du, baldintza ekonomikoak aldatzen badira edo ondasunen gaineko likidaziorik edo transmisiorik izanez gero, baita *mortis causa* izanda ere.

Horretarako, urtero, aurrerakintzat jasotako diruaren gaineko zorraren aitortpena sinatu beharko da. Halaber, baldintza ekonomikoak edo, hala balitz, ondarekoak lehengo berak diren edo aldatu diren adierazten duen zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute.

Jantoki Sozialaren erabilera

5. artikulua.- Baliabide honen erabiltzaileen profila honako hau izanen da, modu generikoan:

a) Behar ekonomiko larriak dituzten pertsonak, zuzen eta egoki gizarteratzea oztopatzen dieten gizarte bazterketako adierazleak altu dituztenak. Elikadurako gutxieneko batzuk asetzeko baliabiderik ez izateak zedarritzen ditu haien bazterketa-maila handia eta bazterketa eragiten dituzten egoerak, hala nola hauek:

- Muturreko pobrezia pairatzen duten pertsonak edo familiak (batez besteko familia-errentaren % 30 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak)

- Diru-sarrerak bermatzeko sistemaren babes ekonomikorik ez duten langabetuak

- Administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak

- Gizarte-laguntzarik edo -sararik gabeko pertsonak, gizartean isolaturik daudenak edo familiaren laguntzarik ez dutenak, oinarrizko iraupenarekin, gaixotasunekin edo zailtasun sozialekin zerikusia duten egoerei aurre egiteko

- Gizarte zerbitzuen erabiltzaile izaki gabezia handiak dituztenak

- Gizarte-zerbitzuen edo udal-prestazioen zorroek eskaintzen dituzten laguntza ekonomikoak jaso ezin dituzten pertsonak, hirian erroldatuta urtebete baino gutxiago daramatelako

- Urrietasun ekonomikoan egon eta bat-batean diru-sarrerarik gabe gelditutako pertsonak eta erreferentziatzko gizarte-langileak behar bezala baloratuta laguntza ekonomikoak jasotzeko balorazio-prozesua egin bitartean sor daitezkeen egoeretan egon daitezkeenak.

b) Laguntza ekonomikoak jasotzen ari diren pertsonak (oinarrizko errenta, kotizatu gabeko pentsioak edo Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemako beste batzuk), baldin eta laguntza horiek, besterik gabe, ez badira nahikoak gizarteratzeko edo arazoa konpontzeko erabateko laguntza gisa, erabiltzaileek gizarte-laguntza horiek estaltzen ez dituzten beste behar eta gabeziak dituztelako, hauek kasu:

- Ezegonkortasun pertsonala, ekonomikoa edo lanekoa duten pertsonak, kanpoko laguntzak behar dituztenak eta oinarrizko beharra, elikadura, batzuetan modu zuzen eta osasungarrian bermaturik ez dutenak.

- Gizarteko nahiz familiako laguntza-sarerik eta baliabide edota trebetasunik ez duten pertsonak, horrek gutxieneko autonomia pertsonala lortzea galarazten badie.

- Etxebizitzari loturiko ordainketak, gutxieneko zerbitzuak mantentzekoak edo oinarrizko beharretarako ordainketak egiteko zailtasun handiak dituzten gizon-emakumeak.

6. artikulua.- Baliabidea abiarazi edo elikadura-laguntza eskuratzeko, auzo-unitateek esku hartuko dute, edo bestela, Udalaren beste gizarte-zerbitzuek edo Udalarenak ez diren gizarte-baliabideen sareak (osasun-etxeak, adimen-osasuneko zentroak, Caritas...), eta behar bezala justifikatu beharko dute, baliabidea eskuratzeko fitxaren bitartez. Salbuespen gisa, eta kasurik larrienen, Etxerik Gabeko Pertsonak artatzeko Zerbitzuak eta Udaltzaingoak ere bidaltzen ahalko dituzte erabiltzaileak.

Diru-bilketarako eta kudeaketarako arauak

7. artikulua.- Jantoki-zerbitzuetan, prezioa haiek noiz erabili eta orduan ordaindu beharko da.

Gainerako zerbitzuetan (etxebizitza komunitarioak eta apartamentuak), prezio publikoa hilabete natural osoen arabera ordaindu beharko da, erabiltzaileek baja ematen ez duten bitartean.

Hilabetearen hasieran edo bukaeran bada, tarifaren hainbanaketa egingen da erabilitako egun naturalen arabera.

8. artikulua.- Udalak, diru-sarreraren arabera tarifa murriztuaren onuradun izan nahi duten erabiltzaileei likidazioa egiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergei buruzko azkeneko aitortpena eskatzen ahal die, halakorik egin behar badute, bai eta ondare- edo diru-ondasunei eta -eskubideei buruzkoa ere.

9. artikulua.- Zerbitzu horiek emateagatik lortutako diru-sarrerak zerbitzuak zein Departamentuk kudeatu eta horrek berak kudeatuko ditu, eta, hileko likidazioen kasuan, zerbitzua noiz eman eta ondoko hilabeteko lehenbiziko bost egunetan egin beharko dira likidazio horiek.

10. artikulua.- Erabiltzaileek Udalez beste entitate baten zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzarik jasoz gero, prezio publikoa ordaintzeko sistema bereziak ezarriko dira aipatutako pertsonen dirua aurreratu beharrik izan ez dezaten.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- UDAL-JANTOKIAK	
1.1.- Adinekoendako jantokiak:	
ERABILTZAILAREN DIRU-SARRERAK	TARIFA, OTORDUKO ETA PERTSONAKO
- 368,45 eurotik behera	1,00 euro
- 368,45 eta 429,45 euro bitarte	2,05 euro
- 429,46 eta 471,32 euro bitarte	2,35 euro
- 471,33 eta 514,38 euro bitarte	2,85 euro
- 514,39 eta 557,45 euro bitarte	3,35 euro
- 557,46 eta 600,52 euro bitarte	3,95 euro
- 600,53 eta 643,58 euro bitarte	5,20 euro
- 643,59 eurotik gora	5,20 euro
1.2.- Jantoki Soziala:	
- Bazkari edo afari bakoitzeko	0,50 euro

II. EPIGRAFEA.- ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK	
- Tarifa orokorra, tokiko eta hilabeteko	764,20 euro
- Tarifa subsidiarioa, plaza eta hilabeteko	Hileko diru-sarreraren % 80, 3. artikuluekin bat zenbatuta.

III. EPIGRAFEA.- APARTAMENTU BABESTUAK	
ERABILTZAILEAREN DIRU-SARRERAK	KUOTA (% , DIRU-SARREREN GAINEAN)
- 325,08 euro bitarte	10,00
- 325,09 eta 333,27 euro bitarte	11,35
-333,28 eta 342,62 euro bitarte	12,21
-342,63 eta 350,81 euro bitarte	13,07
- 350,82 eta 360,16 euro bitarte	13,93
- 360,17 eta 368,35 euro bitarte	14,79
- 368,36 eta 376,53 euro bitarte	15,65
- 376,54 eta 387,06 euro bitarte	16,51
- 387,07 eta 394,07 euro bitarte	17,36
- 394,08 eta 403,43 euro bitarte	18,22
- 403,44 eta 412,78 euro bitarte	19,08
- 412,79 eta 420,97 euro bitarte	19,94
- 420,98 eta 430,32 euro bitarte	20,79
- 430,33 eta 439,68 euro bitarte	21,66
- 439,69 eta 447,87 euro bitarte	22,52
- 447,88 eta 457,22 euro bitarte	23,38
- 457,23 eta 465,41 euro bitarte	24,23
- 465,42 eta 473,59 euro bitarte	25,09
- 473,60 eta 484,12 euro bitarte	25,95
- 484,13 eta 491,13 euro bitarte	26,81
- 491,14 eta 500,49 euro bitarte	27,67
- 500,50 eta 508,67 euro bitarte	28,52
- 508,68 eta 518,03 euro bitarte	29,39
- 518,04 eta 527,38 euro bitarte	30,25
- 527,39 eta 536,74 euro bitarte	31,11
- 536,75 eta 544,92 euro bitarte	31,96
- 544,93 eta 554,28 euro bitarte	32,82
- 554,29 eta 561,30 euro bitarte	33,68
- 561,31 eta 571,82 euro bitarte	34,54
- 571,83 eta 580,01 euro bitarte	35,40
- 580,02 eta 588,19 euro bitarte	36,26
- 588,20 eurotik gora	Gehieneko tarifa
Gehieneko tarifa honako hau izanen da:	
- Banako apartamentuetan (euro/hileko)	215,30 euro
- Apartamentu bikoitzetan (euro/hileko)	271,60 euro

Senar-emazteak badira, edo bikote egonkorreko kideak, prezio publiko hauek aplikatuko zaizkie:

- Banako apartamentuetan, *per capita* errentari baremo orokorra lotuko zaio, eta emaitzari % 25 gehituko.
- Apartamentu bikoitzetan, *per capita* errentari baremo orokorra lotuko zaio, eta emaitzari % 40 gehituko.

Egoera bereziak direla medio pertsona bakar batek apartamentu bikoitza okupatzen badu, emaitzari % 20 gehituko zaio, behin erabiltzailearen diru-sarrerak eta ordaindu behar duen prezioa lotzen dituen baremo orokorra ezarrita.